



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

ARRATZUKO UDALEKO UARKA-LOIOLA BIDEGORRIKO OBREN PLEGUAK ESLEITZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO TXOSTENA

LEA/AVC, 455-PROM-2020 zbk.

Laburpena:

I. AURREKARIAK ETA ESKUMENA	1
II. AZTERKETA	3
a. Esleitzeko irizpideak	3
a.1. Udalerrian aurrez egindako lanak:	4
b.2 Ingurumen-inpaktua gehiago murriztea emisioak murrizteagatik.....	5
b.3 Esleitzeko irizpideak orotara	6
III.- ONDORIOAK	7

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea
Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea
Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazitako kideak bilduta, 2020ko irailaren 15ean egindako bileran, honako txosten hau onartu du, Arratzuko Udalaren Uarka eta Loiola arteko bidegorriko obraren pleguak esleitzeko irizpideei buruzko 455-PROM-2020 LEA/AVC espedienteari dagokionez.

I. AURREKARIAK ETA ESKUMENA

1. 2020ko irailaren 10ean sartu zen Lehiaren Euskal Agintaritzaren erregistroan AAA enpresak ARRATZUKO UDALAREN aurka telematikoki aurkeztutako salaketa. LEA/AVC honi jakinarazi zaizkion gertakariak "B914-2020-00003



UARKA-LOIOLA BIDEGORRIKO OBRAK” espedienteari dagozkion pleguak esleitzeko irizpideei buruzkoak dira; zehazki, "Udalerrian egindako lanak" eta "Ingurumen-inpaktua gehien murriztea" irizpideei buruzkoak.

2.Lizitazio hori Arratzuko Udalak eman zuen argitara 2020ko abuztuaren 5ean, esleipen-prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleitzeko, honako esleipen-irizpide hauen arabera (administrazio-klausula zehatzen agiriko hamargarren klausula):

Proposamenak baloratzeko eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aukeratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, eta automatikoki kuantifikatuko dira, iritzien beharrik gabe:

Prezioa: 0tik 50 puntura emango dira (...)

Udalerrian aurrez egindako lanak: 10 puntu, gehienez.

10 puntu emango zaizkie azken 5 urteetan, sustatzaile publiko zein pribatuentzat, udalerrian mugen barruan 100.000 eurotik gorako obra zibil bat, gutxienez, egin duten lizitatzailerei. Gainerako lizitatzailerek zero puntu jasoko dute kontzeptu horrengatik.

Ingurumen-inpaktua gehien murriztea, emisioa gutxiago eragin dutelako, enpresaren egoitza udalerritik gertu dagoelako: 25 puntu, gehienez.

Irizpide hori enpresaren egoitzatik udalerrira dagoen distantziaren arabera neurtuko da, hurbilen dagoenak gehiago murriztuko dituzenez obretarako erabiliko dituzten langileen eta bitartekoen garraioa. Baremo honen arabera neurtuko da: 5 km baino gutxiago 25 puntu; 5 eta 10 km artean 15 puntu; 10 eta 25 km artean 10 puntu; 25 eta 50 km artean 5 puntu; 50 km baino gehiago 2 puntu.

Hobekuntzak: 0tik 15 puntura emango dira (...)

3. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lehiaren Euskal Agintaritzak, bere helburuak betetzeko aldera, aukera du zehatzeko, sustatzeko, aurkaratzeko, irizpen eta kontsultarako eta arbitrajarako eskumenak erabiltzeko.

Lehia sustatzeko eginkizuna, funtsean, prebentziozkoa da, eta merkatuetako lehia sustatzea, hobetzea eta erraztea du helburu.

LEA/AVCk uste badu administrazio-zuzenbidearen mendeko egintzaren bat edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko autonomiko, foral (foru-arau fiskalak izan ezik) edo tokikoaren legea baino beharagoko mailako xedapen orokorren mendeko egintzaren bat merkatuetan benetako lehia egotearen kaltetan dabiltzala, aukeran izango du egintza horiek aurkaratzeko horiei dagokien jurisdikzio eskudunean.



II. AZTERKETA

4. Sektore publikoko kontratazioari buruzko araudiak ezarri du **lehia askea** funtsezko betekizuna izango dela kontratu-prozedura publiko orotan. Alde horretatik, kontratazioa ezin da erabili lehia artifizialki apaltzeko, eta debekatu egongo da operadore ekonomiko jakin batzuei mesede edo kalte egiteko asmoarekin burutzea kontratazioa. Honakoa dio Sektore Publiko Kontratuen Legearen 1. artikulua:

Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da, horren bidez ziurtatu nahi baita, batetik, **kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikitatearen printzipioa**, eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari lotuta, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatuzko diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak aldeztuz aurretik definituz, **lehia askea babestuz**, eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz”

a. Esleitzeko irizpideak

Kontratuan xedatutako prestazioak gauzatzeko kaudimena dutela egiaztatu duten enpresek aurkeztutako **eskaintzak baloratzeko** erabiliko dira irizpide hauek.

Normalean, hainbat irizpide erabiltzen dira, **kalitate-prezio erlaziorik onenaren** printzipioan oinarrituak. Edonola ere, esleipen-irizpideek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

1. Kontratuaren xedearekin lotuta egotea.
2. Modu objektiboan formulatuta egotea, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak erabat errespetatzea eta kontratazio-organoari erabakitzeko askatasun mugagabea ez ematea.
3. Ebaluazioa lehia eraginkorreko baldintzetan egingo dela bermatzea.
4. Aldez aurretik argitaratzea.

5. Izaeraren arabera, irizpide ekonomikoak eta irizpide kualitatiboak bereizten dira. Baloratzeko moduari dagokionez, zifra edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideak eta balio-judizio baten bidez balora daitezkeen irizpideak bereizi behar dira.

Irizpide ekonomikoak edo kostuekin lotutako irizpideak prezioa edo errentagarritasunean oinarritutako planteamendua dira, adibidez, bizi-zikloaren kostua.



Irizpide kualitatiboak izan daitezke, besteak beste, kalitatea (balio teknikoa, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala, ezaugarri sozialak, ingurumenekoak eta berritzaileak, eta komertzializazioa nahiz horretarako baldintzak); kontratuari atxikitako langileen antolamendua, kualifikazioa eta esperientzia, eta saldu ondoko zerbitzua, laguntza teknikoa eta entregatzeko baldintzak.

Zifra edo ehunekoan bidez balora daitezkeen irizpideak kontratuaren xedearen ezaugarriei buruzkoak dira, pleguetan ezarritako formulak aplikatuz balora daitezkeenak, eta ez daudenak balorazio subjektiboan mende. Eragiketa matematikoak dira.

Iritzi baten mende dauden **irizpideak**, aldiz, ezin dira formula aritmetikoen bidez ebaluatu, eta eskaintza ebaluatu behar duen organoaren diskrezionalitate teknikoko margina bat hartzen dute kontuan eskaintzak baloratzeko.

a.1. Udalerrian aurrez egindako lanak:

6. Zehazki, baldintza-agirietan jasotako esleipen-irizpide honek, udalerrian aurrez egindako lanei buruzkoak, mesede egiten die **udalerrriaren mugen barruan gutxienez** obra zibil bat egin duten lizitatzaleei. Hau da, herrian lanak egiten izandako esperientzia hobesten du.

Egia esan, ez da lehiatzeko oztopo bat, herri horretan lanik egin ez duten lizitatzaleei lizitazioan parte hartzea ez baitie eragozten; baina irizpide hori kontuan hartzea abantaila da lan horiek eginda dituen lizitatzalearentzat, eskaintzak baloratzeko garaian, irizpide horri dagokion puntuazioa lortuko baitu (10 puntu), udalerrri horretan lan egin izana egiaztatzen ez duenaren kaltetan.

Irizpide horrek urratu egiten ditu kontratazio publikoa arautu behar duten printzipioak; izan ere, inolako justifikaziorik gabe, lehentasuna ematen die udalerrian lanak egin dituztenei, nahiz aurreko lanek ez duten balio eskaintzak kalitate-prezio erlazio onena lehenetsiz baloratzeko. Hori dela eta, diskriminatzailea da eta berdintasun-printzipioa urratzen du lizitazioetan.

7. Bestalde, obra zibileko lanetan izandako esperientzia baloratzen duen esleipen-irizpidea da. Enpresen esperientzia ez da esleipen-irizpidetarako erabili behar, baizik eta kaudimen-betekizun egiaztatzeko, hau da, lizitaziora aurkezteko moduan izateko baldintza izan behar luke. Berrito diogu, enpresak antzeko kontratuetan izan duen esperientzia baloratzeak (kontratuok edozein herritan eginda ere) ez du ezertan laguntzen lizitatzaleak aurkeztutako eskaintzaren kalitatea ziurtatzeko, eta, beraz, ez litzateke esleipen-irizpidetzat erabili behar.

8. Gaia sakonago aztertuta, adierazi behar da irizpidea kaudimen-betekizun gisa erabili izan balitz ere, udalerrian egindako lanak aintzat hartuta, ez litzatekeela



zuzena izango, halere lehiari jarduteko oztopo diskriminatzailea izango litzatekeelako eta lizitazioan parte hartzeko berdintasun-printzipioa urratuko lukeelako horrek.

Kaudimen-baldintzak ezartzen dira lizitatuzaileek obrak behar bezala egiteko gaitasun tekniko eta profesional nahikoa badutela ziurtatzeko, baina gaitasun hori egiaztatzeke ez da ezinbestekoa obrak udalerrira jakin batean egin izana.

9. Irizpide hori ezartzean, badirudi udalerriarekin sustraituta dauden enpresen alde egin nahi duela udalak, eta herria eta enpresaren arteko hurbiltasuna lehenetsi. Horri dagokionez, gogorarazi behar da sustraitzeari lehentasuna ematen dioten irizpideak jartzeak inolako justifikaziorik gabeko tratu diskriminatzailea ezartzen duela; ez da ulertzen zergatik jaso behar duen puntuazio handiagoa udalerrira horretan lan egin duen enpresak, beste edozein udalerritan lan zibilak egin dituen enpresaren aldean, lana era berdinekoa izanda.

Horri dagokionez, eztaba da ezina da erabat Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak emandako martxoaren 31ko 9/2009 txostena, guztiz indarrean dagoen doktrina izanik, honako hau adierazten baitu: "Enpresa baten jatorria, helbide soziala edo inguru hartan errotuta egotearen beste edozein zantzu ezin da jo sektore publikoarekin kontratatzeke gaitasun-baldintzatza", eta inguruabar horiek ezin dira erabili balorazio-irizpidetarako ere.

b.2 Ingurumen-inpaktua gehiago murriztea emisioak murrizteagatik

10. Oraingoan, ingurumen-esleipen kualitatiboaren irizpidea erabiltzen ari dira, formula automatikoaren bidez ebalua daitekeena. Hau da, ingurumen-inpaktua murrizteari lehentasuna ematen dio, eta enpresaren egoitza udalerritik gertu egotearen ondorioz emisioak murrizteagatik puntuak ematen ditu, 25 puntu gehienez.

Irizpide hori enpresaren egoitza udalerrira dagoen distantziaren arabera neurtuko da, hurbilen dagoenak gehiago murriztuko dituzenez obretarako erabiliko dituzten langileen eta bitartekoen garraioa. Baremo honen arabera neurtuko da: 5 km baino gutxiago, 25 puntu; 5 eta 10 km artean, 15 puntu; 10 eta 25 km artean, 10 puntu; 25 eta 50 km artean, 5 puntu; eta 50 km baino gehiago, 2 puntu.

11. Lehen ere esan dugunez, SPKLren 145. artikulua ezartzen du hainbat irizpide erabiliz esleitzen direla kontratuak, kalitate-prezio erlazio hoberenean oinarrituta. Irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiei errepara diezaieke, baldin eta kontratua gauzatzeko eragin nabarmena izan badezake ingurumenean, eta, halakoetan, baldintza neurgarriak baloratu behar dira, hala nola ingurumen-inpaktu txikiagoa zeinek izango duen, hau da, besteak beste, berotegi-efektuko gasen emisio-maila murriztuko ote duen lehiatzailearen batek. Hala ere,



azpimarratu nahi dugu bai araudiak bai kontratazioko administrazio-auzitegien doktrinak kontratuaren objektuarekiko lotuta egotea eskatzen dutela, bai eta formulazio objektiboa, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak erabat errespetatzea, eta kontratazio-organoari ez ematea erabaki-askatasun mugagaberik, eta eskaintzak lehia eraginkorraren baldintzetan ebaluatuko direla ziurtatzea.

12. Egia da burutu beharreko prestazioek materiala eta langileak lekualdatzeko garraio-bideak erabiltzea beharrezko badute, irizpidea kontratuaren xedearekin eta gauzatzeko baldintzekin lotuta dagoela pentsa daitekeela, baina horren haztapena proportzionala ote den jakiteko azterketa egitea falta da.¹

Aztertutako kasuan, enpresa esleipendunaren gertutasun horretatik lortuko litzatekeen ingurumenaren gaineko benetako eraginaren azalpena falta da.

13. Gainera, adierazi behar dugu irizpidea ez dela behar bezala diseinatu, enpresaren egoitzaren arabera kalkulatzen baita; eta, aldiz, langileak edo materiala nora garraiatu behar diren hartu beharko litzateke kontuan, eta leku horrek ez du zertan enpresaren egoitza sozialean egon. Izan ere, gerta liteke 50 km baino gehiagora dagoen enpresa bat hurbileko lekuetan hornitzea, eta, beraz, irizpide horren onura jaso beharko lukete.

b.3 Esleitzeko irizpideak orotara

14. Ikusita esleipen-irizpide biak batuta, 100 puntutik 35 puntuz ari garela, ondorioztatu liteke inguruko enpresei edo herrian errotutako enpresei abantaila emateko moduan diseinatu dituela pleguak Arratzuko Udalak. Bertan errotuta egotearekin lotura gutxi gorabehera zuzena duten irizpideei % 35eko ponderazioa egitea gehiegizkoa da gainerako esleipen-irizpideekin alderatuta, ez du proportzionaltasunik bete beharreko prestazioen xedearekin eta, zalantzarik gabe, lehiarako abantaila ematen die herritik gertuen dauden lizitatzaleei. Horrek ez du inolako justifikaziorik, eta lehiatzaileen arteko lehia askea eta leiala eragozten du; beraz, ez du betetzen lehia askea babesteko printzipioa eta lizitazioa distortsionatu egiten du.

¹Hurbiltasun-balorazioaren irizpideari buruzko doktrina orokorra Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2005eko urriaren 27ko epaian dago (C-243/03 auzia, ECLI: EU: c: 2005:589, 25. atala), eta bertan ezarri zen lurralde-sustraitzeari lehentasuna ematen dion esleipen-irizpideren bat onartzekotan, inor ez diskriminatzeko moduan aplikatu beharko da, interes orokorreko premiazko arrazoiek justifikatzen badute, eta lortu nahi den helburua betetzeko beharrezkoa baino harago ez badago.



III.- ONDORIOAK

Lehenengoa: Azaldutako guztiagatik, eta Arratzuko Udalak behar bezala justifikatu ezean, uste dugu aztertutako esleipen-irizpideak kendu egin behar direla lizitazio-pleguetatik, justifikaziorik gabeko abantaila ematen baitiete hurbileko enpresei. Irizpide horiek ez dituzte errespetatzen lehian jarduteko berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, eta ez dute kontratuaren xedearekiko proportzionaltasunik.

Bigarrena: Lizitazio publikoetan lizitatzailen arteko lehia eraginkorra eta ekitatiboa ziurtatu behar dute botere esleitzailerek.

Lizitazioetan lehia izateak berebiziko garrantzia du; horrek ziurtatzen baitu hala botere esleitzailerek nola gizarteak, oro har, horniduren eta zerbitzuen prezioari, kalitateari eta berrikuntzari begira eskaintzarik onenak lortuko dituztela.